

Maskaradak, inauteri festa baino gehiago

Altzürükütarrek prestatu dute aurtengo maskarada. Zuberoako gazteen trebezia agerian utzi dute, beste behin.

Noizdanik egiten diren ez dakigu ziur. Pertsonaia batzuek milaka urte dituzte; beste batzuk orain 500 urte inguru sartu zituzten. Dantza egiten dute pertsonaia guztiek, baina ez dira dantza hutsa. Bertsokatu egiten dute, baina ez dira bertso saioak. Barrikadak ere jartzen dituzte, baina ez dira aldarrikapen politiko soilak. Maskaradak dira.

Aurtengo maskarada altzürükütarrek prestatu dute. Urtarrilaren 30ean egin zuten lehenengo emanaldia, herrian bertan; orain, igandez igande, Zuberoako hainbat herritan antzeztuko dute. Inauteri festa da maskarada, eta oinarrian badu esan nahi handi bat: "Mamia da biziaren birsortzea. Udaberriaren seinale dira; negu hondarra. Birsortzearen sinboloa dira maskaradak, inauteri guztiak bezala", esan digu Ttika Rekalte zuberotarrak.

Zuberoako dantzetan bost aitzindari dira: txerreroa, zamaltzaina, kantiniarsa, gatzuzaina eta entseinaria. Lehenengo biak dira pertsonaiarik zaharrenak, eta badute mundu mitikoarekin zerikusirik. Rekaltek azaldu digunez, zamaltzainaren kasuan adibidez, "Europa zahar guztian daude zamaltzainak, erdi gizon eta erdi abere diren izakiak". Beti agertzen da mitoaren eta errealitatearen arteko lotura hori maskaradetan. "Egiten duten dantza zirkuluan egiten dute. Biribila, ohitura zaharretan, mundu berri baten alegia da. Biribil horren barruan dago inauterietako mundu mitikoa. Maskaradetan, dantza beti egiten da biribilean. Dantzetan egiten dira salto batzuk barrura begira, eta besteak kanpora begira. Beti bada bidaia hori, gaurko mundutik mitikora, eta alderantziz".

Maskaradako jokoak oso egituratuak dira. "Buhameek igandero betiko peredikua dute. Perediku horren mamia da inauterien karietan buhameek beren legeak sortzen dituztela. Lege horiek dira ohiz gizarteak onartzen ez dituenak: ebasteko zuzena, mozkortzeko zuzena, alfer izateko zuzena, auzo baten andrearen ebasteko zuzena", dio Rekaltek. Peredikua maskarada egitera doazen herrian azaltzen dute.

Baina, buhameez gain, ospea duen jendea ere bada maskaradaren barruan: dantzariak, jauna eta bere emaztea, laboraria eta bere andrea..., "gizarte zibil formal edo legalista erakusten duten pertsonaiak". Horiek, baina, ez dute hitzik egiten. "Maskaradan mintzo diren bakarrak gizartetik kanpo direnak dira: buhameak, eta Pitxu eta bere koadrila. Gizarteak bere bizi arruntean onartzen ez dituen gauzak maskaradak eta inauteriek onartzen dituztelako. Beraz, eleak tokia du maskaradan, gizarte formal baten inarrosteko", azaldu digu.

Pitxuen nagusiak ere badu peredikua. Kabana deituak badu liburu lodi bat, eta perediku hatsarrean hau esaten du: "Nire liburu zaharrek zer diote". Rekaltek azaldu digunez, "indartsua da; bortitza, baina zuhurra. Badaki mundua zertan dabilen. Hastapenean esaten du: 'Izan naiz han eta hemen, ikusi dut hori eta hura'... Munduko gorabeherak zangopilatzen ditu, eta, gero, bere antzezpenaren bigarren zatian, etortzen diren hiriko egoera aztertzen du". Beraz, aste osoko prestatze lana daukate. Izan ere, maskarada egitera joateko diren herri horren berri jasotzen dute aste osoan. "Inkesta egiten dute herrian, eta horren bilduma bertsokatu egiten dute. Igandearekin, horiek botatzen

dituzte".

Maskarada ekitaldi gaztea da oso

30 urteaz gero, nahiko zaharra da bat maskaradan parte hartzeko. Gazteek antolatzen dute maskarada, eta "gurasoek baietza ematen dute umeen maskaradetan parte hartzeko, baina baldintzatuz gazteek behar dituztela kudeatu, behar dutela kontu egin, ez daitezen mozkor, joan daitezen etxera biharamunean eskolarat joateko... Maskaradako jaunak du ardura". Hala, herriko gazteen ardurapean dantza eta antzerki hutsa baino askoz ere gehiago dago. Rekaltek azaldu digunez, "asko alkohol eskaintza badagoizdanik, eta jaunak dauka horren ardura. Berak kontrolatzen du maskarada, ongi pasa dadin. Baina maskarada baten egitean denek badakite erantzukizun hori badela".

Gazteek antolatzen dute, eta euren eskuetan dago dena. Jakina, baten batek irakatsi behar die maskaradaren berri. "Belaunaldiz belaunaldi pasatzen da. Adibidez, nik orain 18 urte ditut, eta aurretik maskarada egin duen dantzari batek niri erakutsiko dit. Nik maskarada aurten egiten badut eta bigarren belaunaldi batek hemendik hamar urte barru nire herrian beste maskarada bat egiten badu, nik erakutsiko diot beste bati".

Gaztetasunarekin batera, harrotasuna da maskaraden ezaugarria. "Hiri batek maskarada baten egitearekin probatzen du hiriaren sendotasuna. Zeren eta 40 gazte daude prest herri horretan, igandero-igandero maskarada egiteko", esan digu Rekaltek. Barrikadek badute horrekin zerikusirik. Maskaradak egin goizean, barrikadak izaten dira beti. Orain, antzerkiaren zati izaten dira, baina, lehenago, benetakoak izaten ziren, "manifestazioetan bezala". Hara horren zentzua: "Barrikaden printzipioa da ez uztea maskaradari norbere hirira sartzen. Maskarada egiten duenak esango du 'nik nire herrian gaztetasuna daukat, sendoak gara, indartsuak gara, eta probatuko dugu hiri guztietan pasatuz..'. Beste herrikoek, ordea, esango dute 'a bai? Sendoak zarete? Ikusiko dugu! Barrikadak jarriko ditugu, eta ea kapazak zaretenetz horien goitzeko". Hori zen jokia. Eta, lehenago, barrikadak gainditu ezean etxera joaten ziren maskaradarik egin gabe. "Orain, barrikadetan batzuek pentsatzen dute dantzarien mozkortzea, eta, gero arratsaldean ahul egiten badute, dantzan esaten da dantzaria mozkorra zela, maskarada ez dela izan serioa". Gazteek ardura handia dute, beraz, herriz herri ari direnean. Jaia handia da, baina ardura ez da txikiagoa.

Pertsonaiak

TXERREROA: Honen makilak zaldi buztana dauka puntan. Zaldia abere mitikoa zen. Boterea ematen zuen bizien mundutik hilen mundurako joan-etorriak egiteko. Giltzarria ere badauka, izpiritu gaiztoen haizatzeko.

GATUZAINA: Maskaradara XIV-XV.mendean sartu zela uste da. Adibide berberak kausitzen dira Italian.

KANTINIERSA: Napoleon Bonaparteren garaikoa. Ordura arte buhamesak betetzen zuen lekua hartu zuen. Napoleon III.aren ordezkaria Zuberoara joan zen, eta burgesiari ez zitzaion buhamesa aski elegantea zenik iruditzen. Napoleonen armadako kantinier setan oinarritutako pertsonaia da oraingo hau.

ZAMALTZAINA: Erdi gizaki erdi zaldi den izakia. Herri askotako mito zaharretan errepikatzen da.

ENTSEINARIA: Banderazaina. Hau ere pentsua da XIX.mendearen amaieran sartu zela.

HARTZA: Galdu, eta berriro berreskuratzen ari den pertsonaia. Berpizte mitikoaren sinboloa da Hartza da euskaldunen aita. Lau hilabete harpean lo egiten ditu, eta, primadera etortzen delarik, bizitzera menturatzen da. Biziaren zikloaren berpiztea da maskarada, eta hartza ere orduantxe berpizten da.

Mascaradas

Las mascaradas de Zuberoa son rituales espectaculares en los que se observan la función social, la herencia simbólica y las maravillosas danzas de los carnavales.



Sohütako maskaradak Hokin (2012 - Oier Araolaza / dantzan.com - CC-BY-SA)
Cada año, los jóvenes de una población adquieren la responsabilidad de preparar y llevar las mascaradas al resto de localidades. No es fácil la decisión, pues la mayoría son pequeñas aldeas y, para hacer frente a tamaño desafío, casi todos los jóvenes del pueblo tienen que asumir alguna tarea. Se necesitan bailarines experimentados, cantantes de voz dulce, brabucones dispuestos para la mofa y el jaleo, interpretes teatrales provocadores y versados en declamación, y también músicos.

En los últimos años, las mascaradas suelen celebrarse desde el segundo o tercer fin de semana de enero hasta el domingo de Pascua. El grupo de participantes de la mascarada llega el domingo por la mañana a su correspondiente pueblo. Les recibe una barricada

simbólica. Tras bailar y cantar, tienen derecho a gozar del primer aperitivo. Barricadas, bailes, cantos, tragos y bocados se repiten de barrio en barrio durante toda la mañana.

Los participantes de la mascarada conforman una colorida y ruidosa comparsa. “Los rojos” (*gorriak*) son grandes bailarines. “Los negros” (*beltzak*) son salvajes, provocadores y bulliciosos. “Los afiladores” (*txorrotxak*) cantan a dos voces haciendo las veces de presentadores y cronistas. Los *kauterak* (gitanos caldereros) y *buhameak* (gitanos bohemios) utilizan su irreverente elocuencia para arrancar sonrisas y hacer crítica social. Los cinco aitzindariak instruidos en la depurada técnica de baile de Zuberoa (*zamaltzaina*, *txerreroa*, *kantinersa*, *gathuzaina* y *entseinaria*) demuestran sus excelentes dotes para el baile. Los bailarines suletinos bailan los *dantza-jauziak* (danzas de saltos) con pasos medidos y acariciando la tierra, pero desafían a la gravedad en barricadas, gavotas, branles y baile del vaso (*godalet-dantza*). Cuando ejecutan pasos como el *frijat* o el *antritxat* se despegan de la tierra, pero no los bailan mirando al cielo. Como en la mayoría de danzas tradicionales de la Europa occidental, los suletinos bailan unidos a la tierra. Al saltar, ascienden lo más alto posible, pero imprimen también fuerza en la bajada. La pequeña flauta denominada *txirula*, el *ttun-ttun* o salterio, el tambor y el violín marcan los puntos en los que los pies aterrizan en el suelo.

Maskaradak

Zuberoako lurralde txikiak bisitariari bere hiribildu eta bailaren lasaitasuna eskaintzen dio: bere zelaien berdetasuna, bere arkitektura tipikoa eta, nola ez, urtaro guztietan zehar hedatzen diren askotariko ospakizun lasaiak eta hurbilak.

Musika, kanta eta herri-aren garrantziak ez dio itzal egiten dantzari, urteko ospakizun guztietan leku nabarmena baitu dantzak: uztailaren amaiera eta abuztuaren hasiera bitartean egiten diren Pastoraletatik hasita, uztaileko *Jauzien Egünarekin* jarraituz eta ibilaldia herrietako jaietan eta Maskaradetan bukatuz.

Baina Maskaradak ez dira dantzak bakarrik. Parodiak, jokoak eta hizkuntza bera ohitura bihurtu dira urteko urtarorik gogorrean, neguan alegia. XX. mendeko laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdetik, Maskaradak egiteko epea urtariletik martxora arte luzatu da eta, kasu batzuetan, apirilera arte.

Maskaradak esaten zaie plurala erabiliz euskal hizkuntzan ospakizun oro izendatzeko erabilitako izena delako. Oroitzapenerako erritu ludikoak izan dira eta gaur egun ere halakoak dira. Informazio eta datu zaharrenean arabera, tradizionalki ezkondata ez zeuden mutil gazteek maskarak jarri eta mozorrotu egiten ziren. Elkarren aurkakoak ziren bi talde antagoniko sortu eta gero, Zuberoa osoan zehar herriz herri ibiltzen ziren dantzak, abestiak eta istorioak interpretatuz.

Bi taldeak ezberdintzeko hainbat ezaugarri zituzten: bakoitzean nagusi zen kolorea, jantzien garbitasuna, portaera eta egiten zituzten ekintzetan erakutsitako gorputz adierazpena. XX. mendearen hasieran, erakunde txiki gehienek mota honetako antzezpeneak antolatzen zituzten. Inguruko herriak bisitatu ondoren, Inauterietako azken

eguna iristerakoan, Inauteri Asteartea alegia, *Zanpantzar (Saint Pansard)* izeneko panpina erretzen zuten. Hurrengo egunean garizuma hasten zen.

Testuinguru soziokulturala

Zalantzarik gabe gehien ikertu den ospakizunetakoa da. [G. Héréllé](#), [V. Alford](#), [J. Caro Baroja](#), J. M. Guilcherrek eta, batez ere, [K. Fernández de Larrinoak](#) idatzitako hainbat lanek hori erakusten dute. Alderdi historikoarekin hasiz, koreografikoarekin jarraituz eta arlo antropologiko-etnografikoarekin amaituz, ikertzaileek ez dizkigute ikuspuntu ezberdinak bakarrik eman, are garrantzitsuagoa den balio sozial eta kultural handiko informazio idatzia eta bisuala ere eman digute.

XX. mendearen amaieran sortutako antzeppen eta mende hasierako adituek deskribatutakoenen egiturak pixka bat ezberdinak ziren. Izan ere, Europan izandako gerren ostean eta hirurogeita hamarreko hamarkadara arte Maskaraden antolaketa krisi sakonean sartu zela kontuan hartu behar da.

Aipatutako mendeko laurogeita hamarreko hamarkadara arte ez zen aldaketa adierazgarri eman. Susperraldi ikaragarri bati esker izandako berrikuntzen artean honako hauek nabarmenduko ditugu: igandean ospatzen dira eta Inauteri garaitik haratago doaz, Garizuman sartuz; bisitatzen diren herrien kopurua handitzen da; bisitatutako herrien arteko distantzia ere lehen baino handiagoa da; emakumeak eginkizun oso aktiboak eta entzutetsuak burutzen hasten dira, emanaldietako paper protagonistak antzeztuz edota *dantzariak* izanez.

Dударik gabe, Maskaradak Zuberoaz kanpoko neguko beste festa batzuen ezaugarri berberak ditu. Guztiak urteko garai hartan Mediterraneoko eta, oro har, Europa osoko landa inguruetan bizi diren gizakiek ospatzen dituzten erritualen talde zabaleko portaideak dira. Gauzak horrela, Maskaradak esparru geografiko zabalean hedatutako herrietako portaera erritualen adierazpenak direla esan dezakegu. Antzeppenaren ezaugarri orokorrak hauek dira:

1. Landa-esparrukoa. Jai hauek ziklikoak eta urtaroen arabekoak dira, naturaren erritmo biologikoekin eta nekazaritza munduko laborantza eta artzain jarduerekin harreman zuzena baitute.
2. Maskara eta mozerro zoomorfoak. Animalia itxurako maskarak eta mozerroak erabiltzen dituztela ikus daiteke. Bestalde, animalia horiek ehizatuak, etxekotuak edota sakrifikatuak izan behar ziren. Labur esanda, menderatuak eta kontrolatuak.
3. Inauteri garaian. Aratusteak ospatzen diren egunetan antzeppen dituzte, zehazki antzinako inauterietako egunak kontuan hartuta.
4. Antzerki eta erritu izaera. Neguko festek izaera eszeniko, sinboliko eta sozial argia dute. Antzerki-izaera handiz, gizartearentzat garrantzitsuak diren gaiak jorratzen dituzte. Festa ospatzen duen landa eremuko elkartean jendea sozializatzeko asmoa duten erritualak dramatizatzen dituzte.
5. Soziabilitatea eta mahai baten inguruan biltzea. Herriko bizilagun batzuek beste biztanleen artean dirua batzeko errondak antolatzen dituzte. Diru horrekin janaria eta edariak bildu eta mahai baten inguruan elkartzen dira. Jarduteko modu hau neguko jai guztietan errepikatzen da. Izan ere, Maskaradan dantzak, kantuak, maskarak eta mozerroak duen garrantzia handia izanik, janariaren eta

edariaren inportantzia ere oso handia da. Oro har, funtsezkoak direla esan dezakegu. Beraz, neguan ospatutako festek orokorrean, eta bereziki Maskaradek, eduki sozial eta sinboliko altua dute.

6. Jarraigoak eta prozesioak. Halaber, Maskaradetan parte hartzen dutenak jarraigoetan eta prozesioetan antolatzen direla ikus dezakegu, hainbat hierarkia eta mailatan bananduz, besteak beste honako hauetan: ijitoen taldea; *dantzari* adituen taldea; baso eta mendiko animalien irudikapenak; kantua eta eskariak egiteko koplak; turkiarren, arabiarren, juduen, hungariarren, deabruen, galdaragileen eta hainbat ogibidetako kideen tropak.
7. Pertsonaiak, dantzak eta melodiak. Antzezpen mota hauek kulturaren beste arlo batzuekin lotura handiak dituzte. Pertsonaiak (ijitoak, galdaragileak, zikiratzaileak, zorrotzaileak, zentauroak, banderadunak, hartzak, etab) kontuan hartuz gero, herrialdeko zein Pirinioetako, Europako eta Afrika iparraldeko beste leku batzuetako Inauteri edota ospakizunetan agertzen direla ikus daiteke. Bestalde, interpretatzen dituzten melodiekin harreman estua dute Pirinioetako beste ospakizun edo leku batzuetan erabiltzen dituztenekin. Era berean, erabilitako musika-tresnak inguruko eskualdetan erabiltzen dituztenak direla hauteman dezakegu. Dantzeekin beste horrenbeste gertatzen da.

Nahiz eta kointzidentzia horiek izan, eskualdeko herrietako gazteek antzezterakoan berezko nortasuna erakusten dute, eta ezagunak diren inguruetao eta antzeztzen dituzten pertsonen hizkuntzetan antzeko izenak hartzen dituzte: *Zuberoko Maska(ra)dak*, *Mascarades souletines* edo "*Mascaradas suletinas*".

Pertsonaiak

Jaia antolatzaileen herrian bertan eszenaratzen da, edota parte-hartzaileak gonbidatzen dituzten bestelako herrietan. XX. mendeko laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetan, Pirinioetatik (Euskal Herritik) haratagoko herriek eta hiriek luzatutako gonbidapenei baiezkoko erantzuna ematea ohitura bihurtu zen.

Denboraren joanean gauza asko aldatu badira ere, batzuk anarkiarik ez dagoela gogorarazten saiatzen dira, ezarritako ereduak mantentzen direla adieraziz. Lehen eta azken emanaldiak horren adibide dira, oraindik ere jarraigoa osatzen duten kideen jatorrizko herrian edo herrietan egiten baitira.



[Inauteriak](#) berak eratzen duen testuingurua funtsezkoa bada ere, dantzak Inauteriek harremanik ez duten garai, leku eta egoeratan antzeztu direla aipatu behar da. Dantzak honako leku eta saio hauetan eszenaratu direla jasota dago: Zuberoaz kanpoko landa inguruko herrietako jai eta azoketan; Mauleko (Zuberoako hiriburua) jatetxe eta hoteletan, bertan ostatu hartutako lagunuen aurrean; Hego Euskal Herriko eta Frantziako hirietako antzoki ospetsuetan; Europatik kanpo, etorkin *zuberotarren* elkarteek antolatutako ospakizunetan; eta ez dugu ahaztu behar dantza hauek lagunak oturuntzetan edota ezkontzetan biltzen direnean inprobisatzen direla.

Jarraigoa askotariko pertsonaiek osatzen dute, aurkako bi taldeetan ordenatuta daudelarik: alde batetik [gorriak](#) daude, eta bestetik [beltzak](#).



Talde *gorriko* partaideak hauek ditugu: *aintzindariak* [lehenak edo aurrekoak]; *jauna eta anderea*; *laboraria eta laborista*; *marexalak* [ferratzaileak] eta *küküileroak* [gandorra dutenak]. *Beltzen* artean berriz honakoak aurki ditzakegu: *kereztuak* [zikirratzaileak]; *xorrotxak* [zorrotzaileak]; *buhameak* [ijitoen tribua], *kauterak* [galdaragileak] eta *medizina* [medikua].

Aintzindariak taldea bost pertsonaia ezberdin antzezten dituzten dantzari batzuek osatzen dute: *entsainaria* edo *banderazaina* [bandera edo estandartea daramana]; *xerreroa* edo *txerreroa* [errementaria?]; *gatia* edo *gatiüzaina* [katua]; *zamalzaina* [zaldi itxurako gizona edo zentauroa]; eta *kantiniersa* [kantinera]. *Marexalak* edo *manetxalak* bi pertsonaia dira: ugazaba eta ikastuna edo morroia. *Küküileroaren* papera partaiderik gazteenei ematen zaie, eta ez dira beti kopuru berdinean agertzen. Hala ere, ohikoa bi edo hiru izatea da. *Kereztuak*, *xorrotxak* bezala, bi dira: ugazaba eta ikastuna edo morroia. *Buhameak* lau pertsonaia dira: *buhame jauna* [ijito erregea]; *zilintzau*; beste biek ez dute izenik. *Kauterak Kabana handi* [txabola handia] taldeko burua eta *Pitxu*, *Fripu* eta *Pupu* [nagusia ren laguntzaileak] dira. *Medizina* pertsona bakarra izaten ohi da.

Beste batzuk ahaztu egin dira: artzaina eta arkumeak (*artzaina* eta *atxuriak*), bizargina, notarioa, espainiarra, kedar-garbitzaileak, eskalea eta apezpikua. Beste batzuk, aldiz, noizean behin agertzen dira, emakumezko ijitoa edo hartza esaterako. Hartzaren mozarroa Europa eta batez ere Euskal Herri osoan zehar asko hedatu da, eta hartza da 'beltzen' taldeari bere pantomimak egiteko laguntza eskaintzen diona, hain zuzen ere.

Maskarada 'gorriko' pertsonaia nagusiek (*entseinaria*, *xerreroa*, *gatiüzaina*, *zamalzaina* eta *kantiniersa*) urte jakin batzuetan zehar antzeko kopiak izan zituzten aurkako taldean, baina, iragarri dezakegunez, kasu honetan jantzetan kolore beltza zen nagusi.

Puntu honetan, gaia aztertu duten hainbat idazlek Maskaradetako pertsonaia ezberdinak izendatzeko hainbat forma ortografiko proposatu dituztela adieraztera behartuta gaude. Esaten dugunaren adibiderik esanguratsuenak honako hauek dira: *kukulleroak*, *kherestuak*, *txorrotzak*, *entseñaria*, *gathuzaina*, *zamalztzaina* edo *kantiniertsia*.

Goizeko ibilbidea

Erritualala alde zuzen iragarri daitezkeen gertakarien arabera garatzen da. Denbora eta lekuari dagokionez, bi txandatan bananduta daude: alde batetik, goizean herrian barrena gertatutakoa eta, bestetik, arratsaldean enparantzan edo erdiguneko barrutian gertatutakoa.

Goizean, anfitrioi den herriko *dantzari* talde batek harrera egiten dio jarraigoari. Dantzari hauek *errezibitzaile* izenarekin ezagunak dira. Jaialdia *tabalari* [danbolin-jole] batek eta *txilaia* edo *txirulari* [xirula edo txirula izenez ezaguna den hiru zuloako flauta ezti jotzen duena] batek jotako soinuaren hotsean hasten da. Gerta daiteke, baita askotan gertatu ere, txirula jotzen duen instrumentistak makila batekin salterioa jotzea. Zuberoan salterioa *ttuntun* izenez ezaguna da.

Ondorengo lerroetan dantza bakoitzaren eta goizeko emanaldia osatzen duten gainerako elementuen nondik norakoak azalduko ditugu. Ordena beti berbera da eta horri heltzen diote.

Festa *Barrikada ahustia* izeneko ekintzarekin hasten da. *Errezibitzaileak* izaten dira agertzen lehenak, ospakizunari hasiera emanez. Lehendabizi bakarka egiten duten dantza eta ondoren taldeka. Horren ostean, *maskarakaiak* izeneko txanda dator, hots,

bisitan datorren Maskaradako kideen txanda. Hasierako eginbeharra anfitrioiak bide erdian jarritako oztopo txikia gainditzea da. Oztopoa dantzarien aurrean jarritako ardo botilek osatzen dute; horregatik ospakizunaren lehen ekintza hau *Barrikada* izenez ezaguna da.

Barrikada dantza eginez gainditzen duten aurrenekoak talde 'gorriko' *aintzindariak* dira. XXI. mende hasieran oztopoa ordena honetan gainditzen dute: *entsenaria*; *xerreroa*; *gatiüzaina*; *zamalzaina*; eta *kantiniersa*. Ondoren *jauna* eta *anderea* datoz. Horien atzetik *laboraria* eta *laborarisa*. Segidan *marexalak*. Horren ostean *küküileroak*. *Errezibitzaileen* antzera, *aintzindariak* taldeko pertsonaiek aurrea bakarka eta gero taldeka dantzatzen dute.

Talde 'gorriko' kideek barrikada gainditu eta gero, talde 'beltzeko' kideek gauza bera egin behar dute. Horiek barrikada gainditzeko berezko modua dute: korrika, oihuka eta garrasika agertzen dira, talde 'gorriko' pertsonaien inguruan zirkulua sortuz. Azkenean, lurrian bata bestearen gainean bukatzen dute, *errugbiko melée* bat hondatzerakoan jokalariek lurra jotzen dutenean gertatzen den moduan.



'Beltzak' ordena honetan antolatzen dira zehazki. Aurrena, elkarri sorbaldatik helduta eta bidea irekitzen, *kereztuak* datoz. Distantzia gutxira, bi edo hiru kideko taldeetan eta elkarri sorbaldatik helduta, *buhameak*, *kauterak* eta *medizina*. Aipatutako azken hiru horiek lurrera era desordenatuan erortzen direnak dira. Jarraian *xorrotxak* agertzen dira, oinez barrikada ertzetik igaroz. Ibiltzen diren bitartean jendea agurtzeko kopla bat abesten dute, eta Barrikada ipini duen pertsonaiaren parean daudenean, aldiz, abesteari uzten diote. Momentu horretan poztasun oihuak eta bibak entzuten dira. Parte-hartzaile guztiak solasean hasi eta barrikadako botilak bidetik kendu eta irekitzen dituzte, bertaratutako guztiei ardoa eskainiz. Era berean, jaki solidoak (hestebeteak eta gozokiak), freskagarriak eta beste edari batzuk banatzen dituzte.

Jarraian *Barrikada haustiak* herriko agintarien aurrean errepikatzen dituzte. Deskribatutako sekuentzia hori goiz osoan zehar Maskaradako kideen aurrean barrikada bat agertzen den bakoitzean errepikatuko da. Gertaera hori herriko sarreratik enparantzara doan bidean hainbat aldiz errepikatzen da edo errepikatu daiteke. Plazan herriko agintariak prestatutako azken barrikada zain dute; ordurako eguerdian sartu dira. Aipatutako azken barrikada gainditu eta gero, talde 'gorriko' eta talde 'beltzeko' kide guztiak, herriko agintariak, herri anfitrioiaren bizilagunak eta bestelako bisitariak zirkulu bat osatu eta *Aitzina-phika* eta *Moneinak*, *bi jautzi* [(euskal) jautziak] edo dantza mota, dantzatzeko prestatzen dira.

Hainbat urtetan, goizeko ibilaldian zein arratsaldeko emanaldian izaera soziala eta mistoa duten beste dantza batzuetan parte hartuko dutenak modu ozarrear eta berezian nola antolatzen diren ikusteko aukera izan dugu. Dantza horiek *Kadrillak*, *Polkak* eta *Kontrajantzak* dira.

Behin *jautziak* edo aipatutako beste dantzak bukatuta, parte-hartzaile guztiak bazkaltzera gonbidatzen dituzte, jeneralean jatetxe batean edo herrian horretarako bereziki prestatutako lokal batean. Bazkaltzen amaitu eta gero, plazaren inguruan biltzen dira berriz ere.

Arratsaldeko antzezpena

Arratsaldean '*fonctions*' (hainbat idazlek euren argitalpenetan Maskaradaren parte hori deskribatzeko erabilitako hitz frantsesa) delakoak plazan egiten dituzte. Ekintzak jarraigoko kideak *Barrikada haustia* antzezteko ordenean jarri eta plazara sartzerakoan hasten dira. Berehala hainbat dantza eta saio tartekatzen dituzte. 'Beltzei' ofizio ezberdinak (zikiratzailleak, ferratzaileak, zorrotzaileak eta galdaragileak) antzeztea dagokie. Beste garai batzuetan, 'beltzen' taldeko pertsonaia horiek euren burua baztertzen zutela zirudien, besteengandik bereizteko biarnesez edo frantsesez hitz egiten baitzuten. Besteak, berriz, orokorrean bertako herritarrek darabilten hizkuntzan mintzo dira: euskaraz.

Nahiz eta urtero zehatz-mehatz ez izan egitura bera, eta aspaldiko hainbat informaziok aipatutako ekitaldi batzuk, arratsaldeko antzezpena esaterako, ez zirela existitzen dioten arren, laburki Maskarada batean honako ekitaldi hauek bereiz daitezke:

1. *Kereztuek* [zirikatzaileak] *zamalzaina* harrapatu eta haren zirikatzea antzezten dute.
2. *Marexalek* [ferratzaileak] *zamalzaina* ferratzen dute.
3. *Aintzindariak* hainbat dantzatan parte hartzen dute. Horien artean *Gabota*, *Godalet Dantza* eta *Bralia haustia* deitutakoak nabarmentzen dira.
4. Zorrotzaileak [*xorrotxak*] *jaunaren* ezpata zorrozten dute. Ekintza guztiak koplakantuen, dantzaren seriotasunaren eta elkarrizketa ironiko eta barregarrien artean gertatzen dira.
5. *Buhameak* taldea bere buruak, *buhame jaunak*, sermoi edo *pherediki* bat errezitatzen duelako nabarmentzen da. Emanaldia (zurezko) ezpatekin dantza bat eginez bukatzen dute. Dantza honetan ez dute inolako koordinaziorik erakusten, mugimendu aritmikoak egiten dituztela dirudi.
6. *Kauterek* [galdaragileak] *jaunaren* agindu bati jarraituz galdara bat konpontzen dutela eszenifikatzen dute. Galdaragile batzuk agindutakoa betetzen duten bitartean, haien nagusiak, *kabana handiak*, ikusle goaren aurrean sermoi bat irakurtzen du, azken urtean munduan eta dauden herrian izandako gertakizunen berri emanez. *Jaunak* galdara konpontzeagatik emandako dirua banatzerako orduan eztabaida bat sortu eta *Pitxu* hiltzen da. Gauzak horrela, *medizinari* deitzen diote eta honek, bertaratutako guztien poztasunerako, hura berpiztea lortzen du.
7. Azken kanta eta *jautziak*. Maskaraden amaiera gisa bi ekitaldi daude. Oso estetikoak dira eta herritarren partaidetza bultzatzea dute helburutzat. Bukaerako lehen emanaldian aktore guztiak momentu horretarako zehazki konposatutako abesti bat abesteko biltzen dira. Bigarrenean, aldiz, zirkulu bat osatzen dute *Aitzinaphika* eta *Moneinak* dantzatzeko, ikusle guztiei dantzara batzeko gonbita eginez.

Dantza horien eta beste batzuen ostean, antzezpena ofizialki hurrengo urtera arte amaitutzat ematen da, baina herriko tabernan edo tabernetan festak aurrera darrai, tragotik tragora abestiak kantatuz.

Maskaradak, jarraigoaren pertsonaiei eta dantzei dagokionez, herrialdeko antzerti-lanik osoenak eta askotarikoenak dira zalantzarik gabe. XX. mendeko hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadez geroztik, eta zehazki mende honetan zehar, bere biziraupena parte-hartzaile gazteek ekarritako indarrean oinarrituta dago, emakumezkoen ekarpena ere oso garrantzitsua izanda.

Bibliografia

- ALFORD, Violet. "[Ensayo sobre los orígenes de las mascaradas de Zuberoa](#)". *Revista Internacional de los Estudios Vascos XXII*, 25. urtea, 3. zbk. Paris : Honoré Champion // Donostia : Martín Mena y Compañía, 1931.
- ALFORD, Violet. "Mascaradas de Zuberoa" : *Arte Popular Vasco*. Bilbo : Editorial Laiz, SA, 1983.
- ALFORD, Violet. *Pyrenean Festivals (Winter drama)*. London : Chatto and Windos, 1937.

- ALFORD, Violet. *Fêtes pyrénéennes. Calendrier du Folklore pyrénéen, coutumes et magie, théâtre, musique et danse*. Portet-sur-Garone : Éditions Loubatières, 2004.
- CARO BAROJA, Julio. *El Carnaval. Análisis histórico-cultural*. Colección "La otra historia de España" 10. Madrid : Taurus Ediciones, SA, 1965, 1979, 1983 eta 1984.
- DUEÑAS, Emilio Xabier. "La tradición regenerada. Breve exposición estructurada sobre las fiestas carnavalescas vascas del Invierno". En : *Cultura popular vasca. Annals of foreign studies*. XLII. alea. Kobe : Kobe City University of Foreign Studies, 1998.
- DUEÑAS, Emilio Xabier. *Atzokoa gaur egunean. Inauteriak Euskal Herrian-El pasado en el presente. Los Carnavales en Euskal Herria*. Basauri : Basauri 500, 2008.
- DUEÑAS, Emilio Xabier; LARRINAGA ZUGADI, Josu. "Los carnavales vascos: restauración y revitalización de un tiempo festivo". *Jentilbaratz. Cuadernos de Folklore* ; 9. Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2007.
- FERNÁNDEZ DE LARRINOA, Kepa. *Nekazal gizartea eta antzerki herrikoia Pirinioetako haran batean*. Donostia : Eusko Ikaskuntza, 1993.
- FERNÁNDEZ DE LARRINOA, Kepa. *Mujer, ritual y fiesta: género, antropología y teatro de carnaval en la sociedad rural pirenaica*. Iruña : Editorial Pamiela, 1997.
- FERNÁNDEZ DE LARRINOA, Kepa. "De los límites y transgresiones rituales. Fiestas de Carnaval, danza tradicional e identidad social". En : *Fronteras y puentes culturales. Danza tradicional e identidad social*. Iruña : Editorial Pamiela, 1998.
- FERNÁNDEZ DE LARRINOA, Kepa. "Zuberoako Maskaradak izeneko herri antzerkiaren ahozko literatura". *Euskera, Órgano Oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca*, 1. zbk., 44. alea, Bilbo : Euskaltzaindia, 1999.
- FERNÁNDEZ DE LARRINOA, Kepa. "The folk arts of Maskarada performance". En: ARMISTEAD, Samuel G.; ZULAIKA, Joseba (edit.). *Vocing the moment: improvised oral poetry and Basque tradition*. Reno : Center for Basque Studies, University of Reno Nevada, 2005.
- FERNÁNDEZ DE LARRINOA, Kepa (coord.). *Calendario de fiestas y danzas tradicionales del País Vasco*. Gasteiz : Eusko Jaurlaritza. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2003.
- FOURQUET, François. "La Mascarade d'Ordarp". *Bulletin du Musée Basque. Revue des Etudes et Recherches Basques* ; 129 (3e. Période N° 107), 3. hiruhilekoa, 1990. Baiona : Musée Basque de Bayonne, 1990.
- GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan. *Iñauteria. El Carnaval Vasco*. Donostia : Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S. A., 1973.
- GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan. "Consideraciones generales acerca del Carnaval en el País Vasco". *Boletín Sancho El Sabio*. 1-2. urtea. 1. aroa. Gasteiz: Institución Sancho el Sabio, 1991, 321-324. or.
- GUILCHER, Jean-Michel. *Tradition de danse en Bearn et Pays Basque français*. Paris : Editions de la Maison des Sciences de l'homme, 1984.
- HÉRÉLLE, George(s). "[Les Mascarades souletines](#)". *Revue Internationale des Etudes Basques VIII*, 8. urtea - 2-4. alea. Paris : Librairie ancienne // Donostia : Martín, Mena y Compañía-Impresores editores, 1917.

- HÉRÉLLE, George(s). "[Les Mascarades souletines \(Suite\)](#)". *Revista Internacional de los Estudios Vascos* XIV, 16. urtea, 3. zbk. Paris : Edouard Champion // Donostia : Gipuzkoako Foru Aldundiaren Moldiztegia, 1922.
- HÉRÉLLE, George(s). "Las Mascaradas Suletinas". *Dantzariak* ; 26. Bilbo : Euskal Dantzarien Biltzarra, 1983.
- HÉRÉLLE, George(s). "Las Mascaradas Suletinas" (II). *Dantzariak* ; 27. Bilbo : Euskal Dantzarien Biltzarra, 1983.
- HORNILLA, Txema. *Sobre el Carnaval vasco. Ritos, mitos y símbolos. Mascaradas y totemismo (Las Mascaradas de Zuberoa)*. "Askatasun Haizea" Bilduma; 86. Donostia : Txertoa, 1987.
- HORNILLA, Txema. *Zamalzain el chamán y los magos del Carnaval Vasco*. "Askatasun haizea" Bilduma; 92. Donostia : Txertoa, 1988.
- HORNILLA, Txema. *El Carnaval vasco interpretado*. Biblioteca Vasca. Bilbo : Ediciones Mensajero, 1990.
- IRIGOIEN, Iñaki; DUEÑAS, Emilio Xabier; LARRINAGA, Josu. *Ihauteriak-Carnavales*. Bilbo : Euskal Museoa, 1992.
- JAUREGIBERRY - Doctor. "Mascaradas Suletinas". : *Arte Popular Vasco*. Bilbo : Editorial Laiz, S. A., 1983.
- MOZOS MUJIKA, Iñaki. [Ihauteria Euskal Literaturan](#). Angel Apraiz Ikerketa. Beka 1983. *Cuadernos de Sección Hizkuntza eta Literatura* ; 6. Donostia : Eusko Ikaskuntza, 1986.
- QUIJERA, José Antonio. "Maskarak Euskal Herriko tradizioan". *Jentilbaratz. Cuadernos de Folklore* ; 11. Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2008.
- TRUFFAUT, Thierry. "Les retour des Mascarades". *Dantzariak* ; 39. Iruña : Euskal Dantzarien Biltzarra, 1987.
- TRUFFAUT, Thierry. *Joaldun et Kaskarot. Des Carnavals en Pays Basque*. Donostia : Elkarlanean, S. L., 2005.
- VIOLANT i SIMORRA, Ramón. "Fiestas populares -Carnaval-" / "Representaciones, danzas y deportes, (mascaradas)". : *El Pirineo español*. Tomo II. Colección "Mitos, ingenios y costumbres" 15. Bartzelona : Alta Fulla, 1986.

Maskaradak

Zuberoako maskaradak inauterien funtzio soziala, aztarna sinbolikoa eta dantza miragarriak biltzen dituen erritual ikusgarriak dira.



Sohütako maskaradak Hokin (2012 - Oier Araolaza / dantzan.com - CC-BY-SA)
 Herri bateko gazteek hartzen dute bere gain maskaradak prestatu eta herriz herri eramateko ardura. Ez da erabaki erraza, herri txikiak baitira gehienak, eta horrelako erronka bati aurre egiteko, herriko ia-gazte guztiek hartu beharko baitute lanen bat. Ongi trebatutako dantzariak behar dira, ahots gozoko kantariak, trufa eta ankerkerietarako prest dauden gazte sendoak, probokatzaileak eta esatari txukunak izango diren antzerkilariak, eta baita musikariak ere.



Maskarada Altzürükün (2009 - EKE - Jakes Larre)
 Urtarrileko bigarren edo hirugarren asteburuan hasita, pazko iganderarte luzatzen dira azken urteotan maskaraden egutegiak. Igande goizean iristen da maskaradarien taldea dagokien herrira. Barrikada sinboliko bat dute harrera eginez. Dantzan eta kantuan eginez iragan, eta lehen jan-edanetaz gozatzeko eskubidea irabaziko dute. Barrikadak, dantzak, kantuak eta jan-edanak goiz osoan errepikatzen dira auzoz auzo.

Konpartsa koloretsua eta zaratasua osatzen dute maskaradariak. Dantzari finak dira gorriak. Basatiak, zirikatzaileak eta zalapartatsuak beltzak. Eztarri finez bi ahotsetara kantatzen dute txorrotzek aurkezle lanak eginez, eta kritika soziala eta irria eragiteko etorri bihurria darabilte kautera eta buhameek.



Sohütako maskaradako aitzindariak (2012 - Oier Araolaza / dantzan.com - CC-BY-SA)

Zuberoako dantza teknika berezian trebatutako bost aitzindariak –zamaltzainak, txerreroak, kantiniersak, gatuzainak eta entseinariak– dantzarako dohain harrigarriak erakusten dituzte. Dantza-jauziak urrats neurtuz eta lurra laztanduz dantzatzen dituzte, baina barrikada, gabota, branletik jaustia edo godaletean grabitateari desafio egiten diote dantzari zuberotarrek. Gora jauzi eta frijat eta antrixatekin lurretik askatzen dira, baina ez dira zerura begira ari dantzan. Europako mendebaldeko dantza tradizional gehienetan bezala, lurrarekin dantzatzen dute zuberotarrek ere. Jauzi egiterakoan ahalik eta goren egiten dute, baina goitik beherakoa ere indarrez burutzen dute. Txirula, ttun-ttuna, atabal eta arrabiten doinuek markatzen dituzte dantzarien oinek lurra hartzen duten puntuak.